

4. DIRU-SARRERAK

- **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Ondorioz, kostuak ikusita, gure galtzek 25€ balioko dute. Eskaera lokalean jasoz gero, ez zaio gainkosturik gehituko, bestela, bidaltze gastuak (4€) ordaindu beharko ditu bezeroak, eta guk korreoz bidaliko diogu produktua. Bezeroek, eskuz (lokalean) edo txartel bidez (lokalean eta interneten) ordaintzeko aukera izango dute. Guk beti faktura bat egingo diegulako. Bestalde, 3 hilean behin BEZ-aren likidazioa egingo dugu, horrela, ogasun publikoarekin eguneratuta egongo gara. Galtzen salmentaren bitartez gure diru-sarreraren gehiengoa lortuko dugu, baina hasieran kapitalaren %80a guk jarriko dugu (bakoitzak %20a) eta Basalur S.L. enpresak %20a.

